

FAKULTATEAREN OHIKO BATZARRAREN AKTA **(2021eko ekainaren 14an)**

Berlaratuak eta bertaratu ez direnak (MENeko 22.2 artikulua)

Dekanotza taldea

1. Peña Fernández, Simón – **dekanoa**
2. Arlucea Ruiz, Esteban - **idazkaria**
3. Doblaz Pozo, Patxi – **dekanordea**
4. De la Peña Varona, Alberto- **dekanordea**
5. Casado del Río, Miguel Ángel- **dekanordea**

Administrazio burua

6. Asensio Espina, Kizitiñe

Irakasle eta ikertzaile iraunkorrak

8. Davila Legeren, Andrés (*ez da bertaratu*)
9. Meso Ayerdi, Koldo
10. Lasaga Sanz, Rafael
11. Del Valle Loroño, Ana Irene
12. Novo Arbona, Ainhoa
13. Zalbidea Bengoa, M^a Begoña
14. Lavia Martínez, Cristina (*bertaratu ezina adierazi du*)
15. Antolín Iría, Enrique
16. Ispizua Uribarri, Marian (*ez da bertaratu*)
17. Amurrio Vélez, Mila
18. Miguel Saez de Urabain, Ainara
19. Pérez Dasilva, Jesús Ángel
20. Apodaka Ostaiakoetxea, Eduardo
21. Camacho Markina, Idoia (*ez da bertaratu*)
22. García Ureta, Irene (*ez da bertaratu*)
23. Usín Enales, Sandra
24. Blas Mendoza, Asier
25. Otero Gutiérrez, Beatriz
26. Beaskoetxea Gangoiti, José M^a
27. Martínez Herrero, M^a José (*ez da bertaratu*)
28. Orueta Estívariz, Gorka
29. Mendiguren Galdospín, Terese
30. Tellería Herrera, Imanol
31. Ayestarán Yarza, Alazne

Gainerako irakasle eta ikertzaileak

32. Zabalondo Loidi, Beatriz (*ez da bertaratu*)
33. Iturbe Tolosa, Andoni

AZPho langileak

34. García Vázquez, M^a José (*ez da bertaratu*)
35. Ocerin Beraza, Isabel
36. Kanpandegi Iturbe, Jon Ander
37. Laniella Fernández, Igor
38. Arandia Urtiaga, Igone

Ikasleak

39. Egiguren Aizpiolea, Arantza (*ez da bertaratu*)
40. Kruse Goenaga, Alai (*ez da bertaratu*)
41. Acedo Ramos, Maite (*ez da bertaratu*)
42. Agirresarobe Barandiaran, Beñat (*ez da bertaratu*)
43. Arratibel Pildain, Alaitz (*ez da bertaratu*)
44. Arratibel Salaberria, Miren (*ez da bertaratu*)
45. Guinart González, María (*ez da bertaratu*)
46. García Arrondo, Asier (*ez da bertaratu*)
47. Marco Rincón, Ángela (*ez da bertaratu*)

2021eko ekainaren 14an (astelehena), 11:00ak direnean, UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Batzarra telematikoki bildu da, bigarren deialdian eta ohiko bilkuran, eskatutako quoruma egiaztatu ondoren, dekanoa buru dela, gai zerrendako puntu hauek aztertzeko:

1. Aurreko akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea

Batzarrak aztertu ondoren, 2021eko maiatzaren 7ko ohiko batzarraren akta onartu da.

2. Dekanoaren txostena

Dekanoak ñabardura batzuk egin ditu, txosten gisa, aurreko Batzarretik gertatutako lau gairi buruz:

- A) Praktikak: 688 hitzarmen sinatu dira. Gehiengo historikoa. Ikasle eta egresatuen enplegarritasuna handitzen laguntzen duten hitzarmenak dira. Bestalde, ekainaren 25ean ikasleak ibilbide dualean matrikulatzeko epea amaitzen da.
- B) Mugikortasuna eta eleaniztasuna: 249 pertsonak eman dute izena datorren urteko mugikortasun programan. Hizkuntza ez ofizialetako irakasgaien eskaintzari dagokionez, datorren ikasturterako 31 irakasgai eskainiko dira Shakespeareren hizkuntzan, serie historikoan hizkuntza horretan egin den eskaintzarik handiena.

C) Azpiegiturak eta ekipamenduak: 14. ikasgelaren ondoan dagoen eta hidrauliko izena duen igogailua 0 kotara jaisteari ekingo zaio.

Udatik aurrera, seinaleztapena berri eta eguneratuko da, guneak berriz izendatuko dira eta lizentzia berriak eta lizentzia gehiago lortuko dira MM1erako eta MM2rako.

D) Komunikazioa: Zorion gutunak bidali zaizkie 19/20ko egresatuei, ohiko graduazio ekitaldiaren ordean, osasun egoeraren ondorioz. Azken asteetan eta hurrengoetan, administrazioko langileak gogobetetze inkestak egiten ari zaizkie ikasleei. Erantzun indizea % 80 ingurukoa da. Dekano jaunak une hau aprobetxatu nahi du jendaurrean eskerrak emateko lan hori egiten ari diren langile guztiei. Izan dadila haientzat esker on berezi hau.

Azkenik, Batxilergoko ikasleentzako orientazio jarduerak aipatu ditu. Harrobi berezi horretatik elikatzen dira gure gradu bikoitzak. Modu presentzian egin dira, eta 260 ikasle bertaratu dira.

Ez dagoenez zalantzarik edo galderarik, gai zerrendako hurrengo puntura pasatu da.

3. Dekanoa izendatzeko hauteskundeetarako egutegia

Dekano jaunak aipatu du bere lau urteko agintaldia amaitzen ari dela; beraz, hauteskunde araudian xedatutakoa betez, Batzarrak beste dekanok bat hautatzean amaituko den prozesua martxan jarri behar da. Xede horrez, organo honi aurkezten dio hauteskunde egutegia, hori eztabaidatu eta, hala badagokio, onartzeko. Honako hau da egutegia:

DEKANO HAUTATZEKO EGUTEGIA 2021

- Fakultateko Batzarra, hauteskunde egutegia onartzea Astelehena, ekainak 14
- Erabakia argitaratzea Astelehena, ekainak 14
- Hautagai zerrendak aurkezteko epea Ekainak 15etik, asteartea, ekainak 25era bitartean, ostirala (12:00ak arte)
- Behin-behineko hautagai zerrendak aldarrikatzea (12:00etatik aurrera) Ostirala, ekainak 25
- Inpugnazioak aurkezteko epea irekitzea (13:00etatik aurrera) Ostirala, ekainak 25
- Inpugnazioak aurkezteko epea ixtea (12:00ak arte) Osteguna, uztailak 1
- Inpugnazioen ebazpena eta behin betiko hautagai zerrendak aldarrikatzea Ostirala, uztailak 2
- Botoa lehenago emateko egunak Uztailak 5, 6, 7, 8 eta 9

• Ezohiko batzarra: bozketa

ASTELEHENA, UZTAILAK 12

- Behin-behineko emaitzak aldarrikatzeko eguna Astelehena, uztailak 12
- Inpugnazioak aurkezteko epea irekitzea (12:00etatik aurrera) Asteartea, uztailak 13
- Inpugnazioak aurkezteko epea ixtea (12:00ak arte) Ostirala, uztailak 16
- Behin betiko emaitzak aldarrikatzeko eguna Astelehena, uztailak 19

Batzarrak egutegia onartu du, eta, horrela, dekanok jaunak hauteskundeak deitzeko hartutako erabakia berretsi egin du.

4. Irakaskuntza egokitzeko plana 2021-2022

Plan horrek ikasturtea nola antolatuta dagoen islatzen du. Kasu honetan, 2021-2022 ikasturtea. UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartutakoa osatzen du. Bimodalitatea mantentzen da, baina presentzialtasuna sustatzen da. 3. eta 4. mailako eskolak arratsaldean emango dira. Praktika guztiak modu presentzian egingo dira. Irizpide horiek guztiek % 80eko presentzialtasun ehunekoa dute.

Eredu bimodaleko magistraltasuna txandakako asteetan izango litzateke.

Osasun egoerak aukera ematen badu, bigarren lauhilekoan irakaskuntza guztia presentziala izango da.

Batzarrak onartu egin du.

5. Azterketen egutegia 2021-2022 ikasturterako

Hamar egunetan egingo dira guztiak.

Onartu egin dute.

6. Azpiegitura erabiltzeko eskaera

Bizkaia Aretoan lokalak erabiltzeko eskaera onartu egin da, suizidioa prebenitzeko nazioarteko eguna antolatzeko ("Ekintzaren bidez itxaropena sortuz"), 2021eko irailaren 10ean.

7. Irakasleen plazak

Batzarrak Unibertsitateko Kazetaritza Saileko plaza baten aldeko txostena egin du, elebiduna eta 6 ordukoa (8. eranskina).

8. Galde-eskeak

Ez dago.

Beste aztergairik ez dagoenez, dekanook amaitutzat eman du bilera 11:34an, eta nik, idazkariak, horren fede ematen dut, Leioan, 2021eko ekainaren 14an.

Dekanoak OE
Simón Peña

Idazkari akademikoa
Esteban Arlucea